

# 2014ko

**EUROPAKO PARLAMENTURAKO  
HAUTESKUNDEETARAKO PROGRAMA**

2014ko Maiatzaren 3an





2014ko maiatzaren 25ean, lehenengo aldiz, EH Bildu koalizioa Europako Parlamenturako hauteskundeetara aurkeztuko da. Askapen sozialaren eta nazionalaren bidean, hitzordu estrategikoa da koalizioarentzat, eraldaketa sozialean eragiteko aukera eskaintzeaz gain, bere buruaren jabe izan nahi duten herrien ordua iritsi delako. Eskoziak eta Kataluniak Europako mapa bera aldatzeko baldintzak sortu dituzte eta Euskal Herriak hor kokatu behar du bere burua. EH Bildu protagonista izango da prozesu horretan, eta herrien eta herritarren eskubideen erreferentzia bilakatuko da, baita Europan ere.

Europar Batasuna bidegurutzean dago. Estatu gehienek bultzatutako eredia biluztu egin du krisiak eta krisiaren kudeaketak: pertsonen interesei begiratu beharrean, merkatuaren beharrak, sistema kapitalista bera, babestu dute. EH Bilduk, Europako ezkerreko alderdi kideekin batera, beste Europa bat nahi du: justua, demokratikoa, soziala, irekia, ekologista, berdintasunean oinarritutakoa, aurrerakoia, feminista, baketsua... Programa herritarrekin eta sektore sozialekin batera osatu ondoren, pertsonen eta herrien mesederako egin nahi dugun Europa berri eta ezberdin horren alde alternatibak proposatu eta konpartituko ditugu Europako Parlamentuan. Gure herritaren eta sektore sozialen borrokak Europako bihotzean txertatuko ditugu.

Egungo ereduaren norabidea justu horren guztiaren kontra doa. Garapenaren eta justizia sozialaren aurka. Eskuineko Europaren eta eredu horren ondorioen aurka egiteko unea da. Herritarren parte hartetik hasita, beste Europa bat eraiki behar dugu eta Europako Parlamentuak gaur baino ahalmen gehiago izan behar ditu prozesu horren norabidean eragin ahal izateko.

Europako Parlamentuaren indarra handitu egin da azken urteotan, egia da, baina Europaren norabide estrategikoetan, krisiaren kudeaketan eta eliteen eta estatuen artean sortzen ari diren egitura berrien kudeaketan aparte utzi dute, baztertuta. Honengatik guztiagatik, beste gauza batzuren artean, krisia lehertu denetik Europar Batasunaren defizit demokratikoa handitu egin da nabarmen, esate baterako Nazioarteko Moneta Fondoak, Europako Banku Zentralak eta Europako Batzordeak osatzen duten Troikaren sorrerarekin, demokratikoki aukeratua izan ez dena eta kontrol demokratikorik gabe funtzionatzen ari dena.

Ondorioak denok ari gara pairatzen: langileak, pentsiodunak, gazteak... gizarteak, orokorrean. Herria erreskatatu beharrean, estatuek bankuak eta, bereziki, hartzekodunak erreskatatu dituzte, diru publikoa banketxeen sisteman sartuz bakarrik. Hori ez da herritarrengana iritsi, familiara edota autonomo eta enpresa ertain eta txikiak. Estatu gehienetan, sektore publikoa ez da ongizate sistema sortzen eta elikatzen ari, zapuzten baizik. Eta horrek murrizketak eta pribatizazioak ekarri ditu programa publikoetan, osasun sisteman, hezkuntza sisteman eta zerbitzu sozialetan; eta lan baldintzen okertze ikaragarria. Alegia, zerbitzu publikoak murrizten eta eskubide sozialak deuseztatzen ari dira. Argazkia izugarria da: langabezia, prekarietatea, etxe desjabetzak eta bazterketa soziala. Erabateko haustura soziala estatu askotan. Eskuineko Europak inposatu duen eredu horren aurrean, justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako eredia aldarrikatzen du EH Bilduk. Krisiaren kostoa berdirezionatzeko borroka indartuko dugu,

finantza eremuak sorturiko krisiaren kolpea eta eragina herritarrek ordaintzen jarrai ez dezaten.

Inpaktu hori ez da alor sozialean eta ekonomikoan eman bakarrik (urteotan, kostata, langileen borrokari esker irabazitako lorpen txikiak, eskubide sozialak, deuseztu egin dituzte eta zerbitzu publikoak desmantelatu), baita politikoan ere (eskubide zibil eta politikoak galbidean jarritz).

Estatuen beraien ikuspegitik ere, egungo integrazio ereduak porrot egin du. Troikarekin edo Troikarik gabe, herritarrak uxatu eta baztertu egin ditu eredu horrek eta Europan bizi den jendearen ongizate orokorra galbidean jarri du. Estatu gehienek herritarren bizkarrera bota dute krisiaren pixu guztia, zorraren zama. EH Bilduk horren aurka borrokatuko du, baita Europan ere.

Europako Parlamenturako hauteskunde hauek eskuineko politika horiek azpitik aldatzen hasteko aukera ezin hobea dira. Aldaketarako ordua da Europan eta EH Bilduk, Europako ezkerreko alderdiekin batera, prozesu horretan hartuko du parte, hartzen ari da parte. Honako aldarrikapen eta konpromiso orokor hauek hartzen ditu EH Bilduk:

Justizia sozialari bai! Herrien eta herritarren eskubideak bermatzeko eta askatzeko bidean, desoreka eta haustura sozialak sendatzeko, Europar Batasuneko egituraren defizit demokratikoa bera gainditzeko, iraultza demokratikoa behar du Europak. Prozesu parte hartzailea eta demokratikoa abiatu behar da Europan, herritarren interesei begiratu, gizartea inplikatu eta gaur dauden proposamen bideak edo ekimenak bultzatzeko tresnak erraztu eta indartu. EH Bilduk justizia sozialean eta elkartasunean oinarritutako eredu aldarrikatzen du, finantza eremuak sorturiko krisiaren eragina herritarrek ordaintzen jarrai ez dezaten.

Herrien eskubideei bai! bakeari bai! Maiatzaren 25eko hauteskondeekin eratuko den europar legealdia historikoa izan daiteke, estaturik gabeko nazioak erabakitzeko eskubidea aplikatzen hasiko direlako. Eskozia eta Katalunia bidean dira eta Euskal Herriak ere aldaketa horien protagonista izan behar du. Bere buruaren jabe izan nahi duten herrien eskubideak bermatu behar ditu Europar Batasunak. Hori ere aldarrikatuko du EH Bilduk Europako Parlamentuan. Euskal Herriaren ahotsa izango da EH Bildu Europan eta, Madrilek eta Parisek Euskal Herrian sortu dugun aukera eta itxaropena zapuztu nahi dutela ikusirik, bozgoragailu hori eta Bruselan eta Estrasburgon sendotuko ditugun loturak eta harremanak inoiz baino garrantzitsuagoak izango dira. Madrilek eta Parisek elkarrizketa, akordioa eta herritarren borondatea ardatz dituen prozesuaren aurrean agertu duten jokabide itxia salatuko dugu; eta Aietek irudikatu zuen aukera historikoa parez pare zabalik dagoela esango dugu Europan.

Euskal Herrian abiatu den konponbide prozesuari bultzada eta gatazkari behin betiko irtenbidea emateko eta gaur egun dauden proposamenak edo ekimenak bultzatzeko bideak erraztu eta indartzeko, EH Bilduk interlokuzio propioa izateak Europan berebiziko garrantzia du.

Herrien eskubideei bai! Guretzako nahi ditugun eskubideak europar guztientzat nahi ditugu.

Eta beste horrenbeste nazioarteari begira: eredu berri bat bultzatuko du EH Bilduk nazioarteko harremanetan, politikoetan zein ekonomiko eta komertzialetan, elkarlanean eta elkartasunean oinarrituz. Europak bide propioa eraiki behar du munduari begira ere. European bertan ematen ari diren prozesu independentistak (Eskozia, Katalunia...) babesten ditugu. Herrien eskubideak eta Herritarren eskubideen aldarrikapena eramango dugu, bere buruaren jabe izan nahi duten herrien eskubideak bermatu eta bideratu behar baititu Europar Batasunak.

Eskubide eta askatasun guztiei bai! Erabateko askatasun demokratikoen agertoki bat sustatzearen alde indarrak biltzeko konpromisoa hartzen dugu. Pertsona guztiak, eskubide guztiak izango da gure jarduteko modua. Beste Europa bat eraiki nahi dugulako: justua, soziala, irekia, ekologista, berdintasunean oinarritutakoa eta aniztasunarekiko errespetuzkoa. Faxistek eta eskuin muturreko taldeek sustengatzen dituzten balore, jarrera eta ideien gorakada nabaria da eraiki den European. EH Bilduk aurre egingo die eta inboluzioa borrokatuko du.

Berdintasunari bai! Jatorri, arraza, erlijio, ideologia, sexu joera, kultura, gaitasun edo beste edozein arrazoirengatik egiten den diskriminazio oro desagerrarazi. Neurri integralak hartu behar dira patriarkatuak markatutako errealitatea deseraikitzeke, indarkeria sexista desagerrarazteko eta, bereziki, emakumei beren gorputzaz, sexualitateaz eta ugaltze ahalmenaz erabakitzeke eskubidea benetan bermatzeko.

Europako Parlamenturako hauteskundeetara eramango dugun programa herritarrekin batera osatu dugu, gure bidea eta jarduna herritarrekin batera egin nahi dugulako, baita European ere. Herritarrek eta herri honetako sektoreek prozesu honetan parte hartzeko erakutsi diguten borondatea eta konpromisoa benetan ikaragarria izan da. Tamainako konpromisoarekin erantzungo du EH Bilduk. Zentzu horretan. Europako Hauteskundetako programa lanketarako prozesua otsailan abiatu genuen. Bilbon egin genuen lehen lan saio hartan ekarpenetarako prozesua martxan jarri genuen. EHBildu-tik web orria tresna gisa jarri genuen herritarren eskura. Denbora epe honetan 400dik gora proposamen eta iradokizun jaso ditugu.

Bi hilabete hauetan bilkurak egin ditugu hainbat eta hainbat herritarrekin lehen ahotik sektore ezberdinetan lanean eta borrokan ari direnen kezkek eta proposamenak jasotzeko.

Programaren ardatz nagusiak hiru esparru nagusitan laburbildu ditugu. Europa berria eraikitzeko behar beharrezkoa den aldaketa demokratikoa alde batetik; Europar Batasuneko estatu gehienek inposatu duten eredu sozio-ekonomikoa ezkerretik gainditzeko proposatzen ditugun neurriak, bestetik; eta herrien eta herritarren eskubideetan oinarritutako beste Europa baten osaketa, azkenik:

# 1.-Europa berria eraikitzeko: IRAULTZA DEMOKRATIKOA

Iraultza demokratikoa behar du Europar Batasunak. Herrien eta herritarren Europa eraikitzeko, behar beharrezkoa da europarren parte hartzea bermatzea, Europa behetik gora altxatzea. Europako Parlamentuak eta Europako Batzordeak herritarrengandik sortzen diren ekimenak bultzatzeko eta lege bihurtzeko dituzten bide eta tresna urriak berritu, indartu eta erraztu egin behar dira.

Europar Batasunean demokratikoki aukeratuak eta kontrolatuak ez dauden egiturak onartezinak dira. Ereduak berak sortu zuen krisia eta honen kudeaketa eskuineko Europan oraindik gehiago sakontzeko erabili dute, gehiengoan kalterako. Murrizketetan eta eskubideen zapuzketan oinarritutako politikak legitimazio demokratikorik ez duen egitura horietako batek sinbolizatzen du gaur, Troikak, Nazioarteko Diru Funtsak, Europako Banku Zentralak eta Europako Batzordeak osatzen dutena. Europar Batasunak zuen zilegitasun demokratiko apurra erabateko galbidean jarri dute estatuek krisiaren kudeaketarekin.

Europar Batasuna ezin da ezkutatu estatu kideen «barne arazoan» atzean. Euskal Herriako, Eskoziako eta Kataluniako prozesuek ederki asko erakutsi dute Europar Batasunaren barruan Europa desberdinak daudela kultura demokratikoaren ikuspegitik. Herrien eskubideak bermatu behar ditu Europar Batasunak. EH Bilduk prozesu soberanistak apoiatzen ditu, Europan eta munduan. Erabakitzeko eskubidea ez da eskubide birtuala, erreala da, gauzatu daiteke. Ez da utopia bat. Demokrazia da. Baita Europan ere.

Herriak eskubideen subjektu dira eta nazioarteko deklarazioek eta itunek horrela aitortzen dute. Herri horien herritarrei dagokie, eta beraiei bakarrik, eskubide horren jabe egitea. Aldarrikapen demokratikoei ukazioarekin eta inposizioarekin erantzutea (alegia, erantzun ez demokratikoa ematea) onartezina da Europan.

Urteetan eskuinak izan duen gehiengoak (estatuetan zein Europako Parlamentuan), herritarrak uxatzeaz gain (parte hartze prozesuetan eta prozesu legegileetatik), eskuin muturrari bidea libre utzi dio. Ideia faxisten aurka egin beharrean, estatuek Troikaren aurka, demokraziarik ezaren aurka eta ondorio sozio-ekonomikoaren aurka altxatu diren herritarren aurka jo dute, errepresioa kaleetatik legetara eramanez.

Askatasun demokratiko osoei eta guztiei BAI esaten die EH Bilduk. Inoiz baino beharrezkoa da, askatasun publikoak eta eskubide zibilak murrizten ari diren garai honetan. Estatu espainolaren kasuan, botere faktikoen neurritan eginiko erreformak (Trantsizioa deiturikoa) inposatutako eredu politiko-instituzionala kartzela bihurtu da bere buruaren jabe izan nahi duten herrientzat. Etor-kizunik gabeko eredua da herrientzat, agortu da.

## 2.-Krisitik ateratzeko: EREDU SOZIAL ETA EKONOMIKO BERRIA

### ENPLEGUA

krisiaren inpakturik agerikoena langabezia da. Europar Batasunean inposaturiko eredu neoliberalak inboluzioa ekarri du enplegu politikan eta hitzarmen kolektiboetan. Krisian dauden estatuei inposaturiko lan erreforma Europatik dator, baina Troikarik gabe ere eskuineko Europa eraiki duten gobernuek inposatu egin dute beraien estatuetan. EH Bilduk enplegu politika aktiboak proposatzen ditu (berdintasunean oinarritutakoak, emakumeak baitira kaleratzen eta soldaten merketzearen biktima nagusiak); lanaren banaketa egokia eta lan sarien homogeneizazioa; finantziario publiko sendoa (instituzioei, enpresei eta familiei); inbertsioak sektore estrategikoetan (osasuna, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, I+G+I...). Sektore publikoak enplegu sorreraren motorra izan behar du (ez defizitaren kontrolatzaile soilak) eta ongizate sistemaren elikagaia. Europako gutun soziala betearazi egin behar du Europar Batasuna.

### TOKIKO GARAPENA

Europar Batasunak garapen orekatua bermatu behar du lurralde ezberdinen artean. Tokiko garapen integrala eta lurraldeen autoeraketa proposatzen ditu EH Bilduk: gure beharrei begirako azpiegiturak, elikadura burujabetza, hizkuntza eta kultura garapena...

## I+G+I

Garatutako teknologia ez da enpresa txikietara iristen eta ikerketaren emaitzen esplotazioa esku pribatuetan dago. Oinarrizko ikerketaren eta ikerketa aplikatuaren kontrol publikoa proposatzen du EH Bilduk eta erregioen behar integraletara bideratu dadila (enpresa, formazioa, elkarteak...); zientzia eta teknologia perspektiba integralarekin garatu behar da.

## OSASUNA

esparru honetan ere Europar Batasuna gutxienez bi eredutan zatituta edo banatuta dago. Guztietan, ordea, inboluzioa eman da, eredu merkantilista baten mesedetan. EH Bilduk osasun sistema unibertsala eta irigarria proposatzen du, aurrekontuen kontra finantzatuko den osasun sistema nazionalak hobetsiz. Europar Batasunak izan behar du osasun publikoaren bermatzaile. Osasuna politika guztietan txertatu behar den gaia da. Alegia, osasun politikak eta gizarte politikak integratu egin behar dira (Suedian egiten da, esate baterako), eredu sozio-sanitarioa sortu. Ereduek sozio-sanitario horrek laguntza sozialak integratziora bideratu behar lituzke, aniztasun funtzionalean arautegia bete eta kontziliazio laborala bermatu, horretarako erraztasunak emanaz.

## SOZIO-EKONOMIA

Burujabetza eskatzen dugu, besteak beste Troikarekin edo Troikarik gabe inposatzen zaizkigun politikei aurre egiteko. Baina, horrekin batera, bestelako Europa baten oinarriak jartzeko proposamenak eta planteamenduak jarri nahi ditu EH Bilduk mahai gainean, bestelako Europa eta jendarteko ereduak nahi dugulako. Horretarako, erabakitze bideak herritarrengandik hurbilago egitea eta hauen parte hartzea bermatzea ezinbestekoa da. Gaurko eredu injustuarekin mozteko, EH Bilduk esparru eta ezaugarri hauek indartu nahi ditu: sektore publikoa, ekonomia soziala, tokiko ekonomia, dibertsifikazioa, sektore ezberdinen aldeko apustua, eraberritzearen garrantzia, ingurumena-baliabide naturalen errespetua, eta pertsonak oinarri izatea. Ekonomia ere demokratizatu egin behar da.

## ESKUBIDE SOZIALAK

Gizarte zerbitzuen berme izan dadila Europa eta ziurtatu dezala eskubide subjektibo bezala administrazio guztiek nahikoa egiten dutela eskubide sozial horien garapenean.



## FINANTZAK

EH Bilduren posizio nagusia arautzearen aldekoa da, finantza sistemak ekonomian bete beharko litzkeen funtzioak bete ditzan: ekonomia errearen alde, sektore ezberdinei laguntzeko, pertsonak eta beraien eskubideak errespetatzeko eta bermatzeko... beste eredu sozial eta alternatiboa eraikitzeko. Gaurko eredu estatuen eredu izanik (horrek gudan dituen ondorio guztiekin), finantza tresna minimo batzuk behar ditugu. Zentzu honetan, Europa osorako oinarritzko finantza eskubideak arautu eta onartzeko proposamena egiten dugu.

Honetaz gain, Europako Banku Zentralak Europako Parlamentuaren aurrean bere kontuen berri eman beharko luke eta honek markatu behar litzeki helburu politiko eta ekonomiko orokorrak, helburu sozialen eta herritarren mesedetan. Horietako bat, zalantzarik gabe, enplegu politika sendo bat bultzatzea izango litzateke.

Finantza sistemaren kontrola eta arautzea funtsezkoa da eta hori egiteko tresna nagusia Europako Parlamentuak izan beharko luke. Arautze horrek honako helburu hauek izan beharko litzuke EH Bilduren ustez: iruzur fiskala eta espekulazio hutsa helburu duten finantza produktuen debekua, paradisu fiskalen desagertzea, eskualdeko banku publikoak bultzatzea (ekonomia erreala, tokiko garapena eta jendarte eredu justua garatzeko beharrezkoa den finantza tresna bezala), banka sozialaren aldeko neurriak hartzea eta, orohar, finantza sistemaren gardentasuna bermatzeko neurriak hartzea.

Europako Parlamentuan euroaren eta euroa sostengatzeko dauden politika monetarioen bideragarritasunaren inguruko hausnarketa eta azterketa egin dadila proposatzen dugu. Politika monetarioak herritarren mesederako helburu politiko eta sozialak bete behar ditu, ez finantza botereen mesederako.

## ZOR PUBLIKOA

Zorra ikuskatzea proposatzen du EH Bilduk, ilegítimoa zein den zehaztea eta ez ordaintzea. Erabaki hori hartu behar dela uste dugu herritarren gehiengoari onurak ekarriko dizkiolako. Egungo zorra ordainezina da eta kita egiteko unea iritsi da.

## FISKALITATEA

Fiskalitatearen helburuek pertsonen eskubideen zerbitzura egon behar dute. Zerga politika ez da soilik sarrera bermatzeko tresna, baita ondasunaren banaketa bultzatzeko ere. Zentzu horretan, herri bakoitzak bere politika fiskala arautzeko eskubidea beharko luke, baina Europari marko orokor bat definitzea egokitu beharko litzateke, irizpide orokor hauekin: lan errenta eta

kapital errenten zergapetzea berdindu; ondasun handien gaineko zerga bat ezartzeko irizpide orokorra; sozietateen gaineko zerga mozkinen gaineko zerga batengatik ordezkatzeari; oro har, izaera progresiboa eta zergapetze zuzena bultzatzea.

Europako aurrekontuak sostengatzeko zerga propioak izateko azterketa irekitzea proposatzen dugu. Gero, jakina, Europako erakunde guztien aurrekontu politikan eta gastuan gardentasuna eta kontrol publikoa bermatu behar da.

## ELIKADURA BURUJABETZA

Nekazaritzaz, abeltzaintzaz eta arrantzaz ari garela, Elikadura Burujabetzaz ari da EH Bildu, alegia, ekoizpena, transformazioa eta kontsumo eredu jakin batez ari gara. Gaur, gure nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren oinarriak Europar Batasunaren jantzen dira. Politikak oso neoliberalak dira, transnacionaleen mesederako. Gurea, ordea, lurra eta itsasoari lotutako nekazaritza-abeltzaintza-arrantza eredu da. Arrantza industrialaren aurrea, esate baterako, gurea arrantza selektiboa da, aberatsagoa, kalitatezkoa, jasangarriagoa. Gure ereduak, orokorrean, Elikadura Burujabetza da. Etorkizuna, ingurumena, zainduko eta bermatuko dituen eredu osasunarekin erabat lotuta dago guretzat. Joera, honetan, garaian garaikoa kontsumitzea izango litzateke. Hau guztia egun batetik bestera ezin bada egin ere, helburuak elikadura burujabetza beharko luke izan herri guztietan. Honetarako, Europar Batasuneko legeak goitik behera aldatu behar dira. Eredu egokian ari diren baserriak eta arrantzaleak, ekoizleak, industria eta banatzaileak, saritu behar dira (dirulaguntzak ematerakoan, esate baterako).

## INGURUMENA

Ingurumenari dagokionean, hiru alorretan egingo dituzten proposamenak EH Bilduk: Hondakinak, mugikortasuna eta energia.

- Hondakinak: Produkzio fasean, ikerketa eta garapenaren bidetik eta lehengaien berreskuratzearen bitartez hondakinak murrizteko plana, Europar Batasun osorako proposatzen du EH Bilduk.
- Mugikortasuna: azpiegitura handien erabakitzeko prozesuetan herritarren parte-hartzea beharrezkoa bihurtzeko zuzentarauak behar dira. Garraio publikoaren erabilera eskubide sozial bezala kontsideratu behar da. Europak aztertu beharko luke berriz AHT proiektuaren bideragarritasuna.
- Energia: Europa mailako legedi edo araua Frackingaren inguruan; energia berriztagarrien sustapenerako programak; Europako energia irizpideak, legeak eta arauak eza-

rriko dituen erakunde publikoaren sorrera; eta energia nuklearra hauspotu ordeztu, zigoritu. Energiaren lege europarra estatuei betearaziko dien arduraduna (erakunde publikoa) sortu behar da

## HERRITARTASUNA

egungo eliteen Europa honen aurrean, herritarrak kategoriatan sailkatzen diren garai honetan, herritartasun kontzeptua berreraiki behar da; oinarritzko eskubideen karta teoriatik praktikara ekarri behar da; faxismoa, mugimendu populistak, eskuma muturreko taldeek sostengatzen dituzten balore, jarrera eta ideiei aurre egingo diegu, gaurko inboluzioaren aurka borroka egingez; balore eta ideien konfrontazioa beharrezkoa da gaur Europan eta Europako Parlamentuan; giza eskubideen estandarrak hobetzeko eskubide hauen interpretazioan eta aplikazioan sakontzea planteatzen dugu.

## 3.-Eredu berria: HERRIEN ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK

Euskal Herria eskubideen subjektua da. Nazioarteko deklarazio eta itunek herriei aitortzen diete izaera hori. Euskal Herriak, bertoko herritar guztiek eta bakoitzak dute eskubidea bere gizarte eta instituzio adierazpen propioaz hornitzeko, gure geroa kanpoko eskusartzerik eta inolako muga ezarririk gabe erabaki ahal izateko. Bere hizkuntza eta kultura, bertako jendearen arteko harremana, bere nortasunaren kontzientzia eta kolektibitate moduan garatzeko borondatea oinarri duela osatu du Euskal Herriak bere herri izatea.

Eh Bilduk askatasun demokratikoen alde egiten duen Europa nahi du; gatazka konponbideetan inplikatzeko den Europa; giza eskubideen defentsan diplomazia sustatzen duen Europa; beste erredu poliziala nahi duen Europa.

## EUSKAL HERRIAREN EGITURATZEA ETA ORDEZKARITZA INSTITUZIONALA

Euskal Herriko herritar guztiei dagokie, eta euri soilik, beren ordezkaritza demokratikoaren artikulazio era eta ereduak zein lurralde ezberdinen arteko egituraketa erabakitzea. Egungo administrazio mugen gainetik eta mugok taiutzen dituzten ordezkaritza instituzional edo administratibo esparruez gaindi, nazio ordezkaritza instituzional demokratiko hori eratu ahal izatea euskal herritarrei beren osotasunean dagokien eskubidea da.

## BAKEA, SEGURTASUNA ETA ASKATASUNA

Euskal Herriak bakean eta segurtasunean bizi eta askatasunez erabaki ahal izateko eskubidea du.

## KULTURA ETA NORTASUN EZAUGARRIAK

Euskal Herriak bere hizkuntza propioan hitzegiteko eskubidea dauka. Bere arte, historia eta kultura adierazi, garatu eta transmititzeko eskubidea dauka, honenbestez bere ekarpena bideratzen diola munduaren ondareari, inolako ezarpen edo zentsurarik gabe. Euskal Herriak eta berau osatzen duten gizon-emakumeek eskubide osoa dute nazio gisa eta nazio identitate horren baitan nazioarte mailan burutzen diren nolanhiko kultur, arte eta kirol ekimenetan parte hartzeko.

## BALIABIDE EKONOMIKOAK ZEIN NATURALAK

Baliabide naturalen, ekonomikoen eta zientifikoaren gaineko kontrola, informazioa eta ezagutza eskuratzeko aukera Euskal Herriko herritar guztiei dagozkien eskubideak dira. Euskal Herriak hautatzen duen sistema ekonomiko eta sozialez baliatzeko eta garapen ekonomikoaren bidean bere bidea bilatu eta hautatzeko eskubidea du. Baliabideon erabilpena demokratikoa izatea funtsezko oinarria dugu, ingurumenaren oreka ekologikoa arriskuan jarri gabe Euskal Herriko eta planeta osoko herritarren ongizatea lor dadin. Zientzia eta teknologiaren garapena gizartearen zerbitzuan nahi ditugu, aberastasun kolektiboaz guztiok gozatu eta lana eskuratzeko bazterkeriarik sor ez dadin.

## BERDINTASUNA

berdintasun erreala sustatzea proposatzen du EH Bilduk, politika transbertsalen bitartez. EH Bildu eskubide sexual eta erreproduktiboaren alde dago; genero indarkeria borrokatzeko neurrien homologazioaren alde; konziliazioaren alde.

## HEZKUNTZA

Herri eta herritarron eskubideak bermatzeko eta Europa berri bat eraikitzeko oinarritzko zutabe da hezkuntza, egungo ereduaren eraldatzeko giltzetako bat. Hezkuntza, herritar guztion eskubidea da: unibertsala, publiko-herritarra, doakoa, inklusiboa eta laikoa, aukera berdintasunean oinarrituz, jendarte justuago bat bermatzeko, balore feministetan oinarritutako hezkuntza. Maila orotako aniztasuna aintzakotzat eta aberastasun moduan hartuko duena. Hezkuntza, oinarritzko eskubide den neurrian, bermatua izateko, administrazio publikoek behar besteko baliabide ekonomiko zein pertsonalak ziurtatu behar dituzte. Hezkuntza, gainera, herri-eskubide gisa ulertzen du EH Bilduk, gure behar sozio-ekonomiko eta kulturei erantzuneko dien hezkuntza. Zentzu honetan, barruti propioa beharrezkoa ikusten dugu, besteak beste gure hezkuntza sistema propioa eta euskalduna izateko edota bultzatuko den ikerketa jendartearen behar-izaretara zuzentzeko, ez merkatuaren beharretara.

## HIZKUNTZA

Gure eredu nazioen edo herrien Europa da, aniztasunean, berdintasunean eta bizikidetzan oinarritutakoa. Aitortza eta ofizialtasuna eskatzen ditugu, hizkuntz eskubideen bermea. Hizkuntza guztien aitortza eta ofizialtasuna, estatus berdintasuna eta demokratizazioa (erabilera bermatzea).

## EUROPA FEMINISTAREN ALDE

Europa feministaren alde lan egiteak genero-ikuspegiak gure programaren atal guztiak bustitzea eskatzen duela erabaki du EH Bilduk. Feminismoa ezin da izan programaren atal huts bat, feminismoaren aldarrikapenak arlo eta esparru guztiak ukitu eta busti behar ditu. Aldarrikatzen dugun eredu sozial eta ekonomiko berria feminismoz busti nahi du EH Bilduk.

## BESTE HERRIEKIKO HARREMANAK

Nazioarteko komunitatea osatzen duten estatuiekiko eta gainerako erakunde politikoekiko harremanaz erabakitzeko eskubidea du. Nazioarteko foro eta organismoetan baldintza berdintasunez eta ahots propioaz parte hartzeko eskubidea du, nazioartean dagozkion eskubide eta betebeharrak konplitu, bere askatasun horretatik abiatuta, herri, nazio nahiz estatu guztien arteko elkartasuna eta begirunea bultzatzeko.



The logo features a stylized green shape resembling a speech bubble or a drop on the left, which partially overlaps the letter 'e'. The text 'ehbildu' is written in a bold, sans-serif font, with 'eh' in white and 'bildu' in green. Below this, the phrase 'herrikerabaki' is written in a smaller, sans-serif font, with 'herrie' in white and 'kerabaki' in red.

**ehbildu**  
herrikerabaki